

## Etorkizuneko etxea.mp3

–Gaurko irratsaioan, etorkizuneko etxea nolakoa izango den azalduko digun ingeniari batekin hitz egingo dugu, Maider Zaraterekin. Egun on, Maider.

–Bai, egun non.

–Azken urte hauetan etorkizuneko etxe baten prototipoan aritu zara lanean, ezta? Nolakoa izango da?

–Etxeak bizitza errazago egingo diguten hainbat teknologia eskainiko ditu. Adibidez, etxean sartzeko, ez dugu giltzarik behar izango. Begi-ninia sentsore batera hurbilduz sartuko gara.

–Erosoa, benetan. Baina baditu beste berezitasun batzuk, ezta? Adibidez, etxetresna guztiak etxetik kanpo gaudenean jarri ahal izango ditugu martxan.

–Bai. Gaur egun badago hori egitea, baina tresna bakoitza programatu behar da banan-banan. Etorkizuneko etxean, telefono dei bat eginez egingo dugu hori; nolabait esateko, etxetresnarekin hitz egingo dugu, eta zer nahi dugun adieraziko diogu: zer ordutan nahi dugun, zer tenperaturatan... tresnak informazioa prozesatuko du, eta agindua beteko du.

–Horrek ere asko erraztuko digu bizitza, bai. Zer gehiago eskainiko digu?

–Ba, adibidez, telebista etxeko edozein paretatan ikusi ahal izango dugu, nahi dugun tokian ukituz.

–Ispiluak adimenduak izango direla irakurri dut. Zer esan nahi du horrek?

–Ba, betiko funtzioaz gain, nahi izanez gero, gustatzen zaigun arropa aukeratu ahal izango dugula, eta irudiaren gainean ukituz, jantzita nola geratuko zaigun ikusiko dugula. Gustuko baldin badugu, unean bertan eros dezakegu, eta etxean jasoko dugu aukeratutakoa.

–Zoragarria, probatu eta dendara joan gabe arropa erostea, hori bai gustatzen zaidala. Baina, horrez gain, makillajeak probatzeko aukera ematen duela entzun dut.

–Bai, baina hori komuneko ispiluak duen berezitasunetako bat da. Makillajeak probatzeko aukera ematen du, eta, gainera, azalaren azterketa egiten du, eta hobetzeko aholkuak ematen ditu.

–Horrek guztiak magia ematen du! Beste aurrerapenen bat?

–Bai, tira, asko daude, baina bitxikeria moduan osasun-azterketena kontatuko dizut. Izan ere, etxeko norbait gaixotzen bada, etxeak berak egingo dio osasun-jarraipena; pisua, odol-presioa eta glukosa kontrolatuko dizkio, eta, behar denean, medikuari deituko dio.

–Erosoa eta segurua, beraz, etorkizuneko etxea. Ba, mila esker eman diguzun informazioagatik. Ea laster ikusten dugun horrelako etxeren bat gure inguruan!

–Momentuz prototipoarekin ari gara lanean, baina, nire ustez, aurrerapen horiek guztiak ez badira ere, horietako batzuk laster izango dira gure artean.